



Ingurumen- esposizioak eta garunaren garapena: zer dakigun eta etorkizuneko erronkak



~Doako jarduera irekia
~12:30ean
~Donostiako Miramar Jauregian edo online

Hizlaria: Mónica Guxens, Medikuntza Prebentiboko eta
Osasun Publikoko mediku espezialista

Ingurumen Esparru Programa 2030 elkarriketak

Abe. 05 2024

Kod. W17-24

Mod.:
Online zuzenean Aurrez aurrekoa

Edizioa
2024

Jarduera mota
Jarduera irekia

Data
Abe. 05 2024

Kokalekua
Miramar Jauregia

Hizkuntzak
Gaztelera Euskara

Antolakuntza Batzordea

Fundación
BBVA



Azalpena

Airearen kutsadura handiagoak eta muturreko temperaturek garunaren garapenari eragiten diote.

Gero eta urbanizazio handiagoa dago mundu osoan, eta, horren ondorioz, gero eta jende gehiago dago airearen kalitate txarragoa, ingurune zaratsuagoak eta naturguneetarako sarbide txikiagoa duen hiri-ingurunearen eraginpean. Azkenaldiko lanetan frogatu dugu airearen kutsadurak eta muturreko temperaturek eragin negatiboa dutela garunaren egituraren eta funtzioaren haurtzarorako. Gainera, ikusi dugu berdeguneetarako sarbide handiagoa izateak garunaren garapen hoberena sustatzen duela, ibilgailuen zirkulaziotik datorren zaratarekiko esposizioa murrizten delako neurri batean. Aurkikuntza horiek erronka berriak planteatzen dituzte, hala nola toxikotasun gehien izan dezaketen aldiak identifikatzea, prebentzio-neurri efizienteak ezarri ahal izateko, eta epe luzearako alderazio klinikoak edo funtzionalak zehaztea.

Antolakuntza



EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN
ETA INGURUMEN SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD
Y MEDIO AMBIENTE

Programa

2024-12-05

12:30 - 13:45

“Exposiciones ambientales y desarrollo del cerebro: próximos retos”

Mònica Guxens Junyent | ISGlobal - Instituto de Salud Global de Barcelona - ICREA
Research Professor en ISGlobal

Eva Caballero kazetariak hizlariarekin elkarriketa izango du hitzaldia amaitutakoan / La periodista Eva Caballero mantendrá un diálogo con la ponente una vez finalizada la conferencia

Irakasleak



Mònica Guxens Junyent

ICREA Research Profesor: Bartzelonako Osasun Globaleko Institutua

Mònica Guxens prebentzio-medikuntzako eta osasun publikoko mediku espezialista da. Lehia nazionaleko hainbat kontratu lortu ditu (Río Hortega 2008an, Miguel Servet I 2013an, Miguel Servet II 2018an, ICREA Research Professor 2024an). 2016an, Health Effects Institute erakundeko (AEB) Walter A. Rosenblith New Investigator Award sari entzutetsua irabazi zuen, haren jardunbide bikainaren eta ibilbide profesional oparoaren aintzatespen gisa. Nazioko eta nazioarteko hainbat proiekturen buru izan da, eta beste hainbatetan ikertzailekide gisa hartu du parte modu aktiboan. Hala, profil bikaina eta nazioan nahiz nazioartean aintzatetsia eraiki du. INMA proiektuaren zuzendaria da; Espainian jaiotako taldea da hori. Europako Epidemiologia Aldizkariko editore elkartua da. Pompeu Fabra Unibertsitateko irakasle elkartua da, eta 15 doktore-tesi eta 22 master-amaierako lan zuzendu ditu.

Matrikula prezioak

IZEN EMATEA - AURREZ AURRE	2024-12-05 ARTE
Matrikula doan	0 EUR

IZEN EMATEA - ONLINE ZUZENEAN	2024-12-05 ARTE
Matrikula doan	0 EUR

Kokalekua

Miramar Jauregia

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa